

BERRIGARA

49. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, urriak 4

LUISA

Agirrezabal

Zelako 100 urte!!



ION

Urarte, 10 BERGARA • Telefonoak: 76 47 49 / 76 47 73

AUTOAK

- Hasierako prezio bereziak.
- Aukera zabala bigarren eskuko kotxeetan.



ZATOZ Berlingo

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

**ALTZARIAK
DEKORAZIOA**

AROSZTEGIA



San Juan, 1 (Barruti) • BERGARA • Telefonoa eta faxa: 76 54 91



Dr. Tripaldi

HAGIN KLINIKA

Fraiskoziuri 1, 2. eskuma. ☎ 76 70 76

**HAGIN EZARKETAK
OIAREN TRATAMENDUA**

**ORTODONTZIA
HAURRAK**

**PROTESIAK
ODONTOLOGIA**

Lehen bisita

eta aurrekontua

DOAN!!



BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxes: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkartea.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar

Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezar

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ESTHER APAOLAZA AEDko ordezkaria

- Asteazkenean 7etan Euskalaneako batzar sortzailea izango da Arrasaten. Zer da ?

- Enpresetan euskaren presentzia areagotzeko proiektua litzateke. Momentuan Deba Garaiko 20 bat enpresa sartuta daude Euskalan proiektuan baina esan behar da Euskal Herri osoko enpresetara zabalteko asmoa daukagula. Azken batean lan munduan euskara sartu daitekeela da transmititu nahi dugun ideia. Esparru guztietara euskara hedatzea nahi dugu, idatzizko, ahozko eta kanpoko zein barruko harremanak euskaraz egin daitezten.

- Zer egin da orain arte Euskalan proiektuan sartuta dauden enpresetan?

- Lantegi ezberdinetan



egoera diferentea da. Zenbaitetan euskara batzordea dago eta batzorde horiek ikastaroak antolatu, itzulpenak egin eta beste hainbat lan egiten dituzte. Elkarteak euskara batzorde hori elikatzeko zeregina dauka, ideia berriak sortuz. Bestalde, euskara batzordea ez dagoen enpresetan batzorde hori sortzen ahaleginu behar gara etorkizunean.

“Euskalan proiektuarekin lan munduan euskararen presentzia areagotu nahi da”

I T U R R I O N E T I K

Dia katearen supermerkatua zabalduko da Amillagan

Amillagan supermerkatu bat irekiko da datozen hilabeteetan. Dia supermerkatu kateak eskakizun bat aurkeztu zuen Amillagan (Txurtzil enpresaren ondoan) supermerkatu bat irekitzeko eta badirudi Udalak baieztatu erantzuna eman diola Dia kateari. Dagoeneko inguruko lantegi eta bizilagunei horren berri eman die Udalak, supermerkatua zabaltzearen kontra dauden ala ez jakiteko edo zerbait esateko daukaten ala ez. Dia supermerkatu kateak Estatu osoan zehar egiten du lan eta Bergarakoa izango litzateke inguruko supermerkatu bakarra. Oraindik ez da zehaztu noiz zabalduko den supermerkatua.

E S A N
D U T E

“Egunkarietan iragartzen diren erakusketetara joateko ohitura daukagu, baina hau berezi samarra dela esango nuke. Lan onak ikus daitezke eta gainera ausnarketarako ere balio dezake erakusketak: Aita Menniko emakumeak gaixo egon arren, lan egin dezaketela eta emaitza oso positiboak lortu ditzaketela ikusiko du jendeak”.

**JUAN
BALENTZIAGA**
Artista
ARRASATE
PRESS

“Xomorroak landaretan agertzen direnean eskua sartu behar ote dugun aztertu egin behar da, askotan hanka baita sartzen duguna. Naturak baditu bere baliabideak ekilibrioa kontrolatzeko”.

**TOMAS
LARRAÑAGA**
Baserritarra
EGIN

**ERASER**

Eguakitza: 22.30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).

**GOLDENEYE**

Domeka: 11:30.

**ENTRE DOS MARES**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Arnold Schwarzenegger** aktoreak (*Terminator, Mentiras arriesgadas*) protagonizatutako azken filmea. *Eraser* ajenteak (**Schwarzenegger**) testiguen babeserako ajentzia sekretu batean egiten du lan. *Lee Cullenek* (**Vanessa Williams**) ikusi behar ez zuena ikusi du eta orain munduko hainbat erakundek *Cullen* akabatu nahi dute...

▼▼ **Pierce Brosnan** aktorea 007 agente berria dugu. Oraingoan *Goldeneye* izeneko proiektua ikertzeko aginduko diote eta Frantziatik Kubara egindako bidaian hainbat oztopori aurre egin beharko dizkio 007 ajenteak. Misio arriskutsu honetan errusiar agente baten (**Izabella Scorupco**) laguntza izango du Bond ajenteak.

▼▼ **Marion Hanslek** zuzendutako filme hau iazko Canneseko Zine Jaialdian aurkeztu zen. Barku zahar bat Hong-Kongera helduko da eta itsasgizonak astebete itxaron beharko dute dirua kobratu ahal izateko. *Nikos* izeneko itsasgizonak (**Stephen Rea**) *Li* (**Ling Chu**) izeneko neskatza ezagutuko du eta bien artean erlazio berezia sortuko da.

Deiak

▼ **AEK eguna.** Urriaren 20an Donapaleun ospatuko den AEK egunera joateko autobusak antolatu ditu Bergarako Akulu AEK Eskaltegiak. Interesatuak 76 05 18 telefonoan edota Masterreka 13ko lokalean hartu ditzakete autobus txartelak, urriaren 17a baino lehen.

▼ **1926an jaiotakoen** bazkaria Antxoni jatetxean urriaren 20an. Izen-ematea 76 46 65 (Floren) eta 76 35 18 (Maria Pilar) telefonoetan.

▼ **1931n jaiotakoen** anaiarteko eguna urriaren 19an. Meza arratsaldeko 8etan Santa Marinaran eta ondoren afaria Antxonin. Izen-ematea Antxoni tabernan.

▼ **Maite Salsamendiren** mar-goak Kultur Etxean igandera arte.

Ogia

▼ **Igandea 6:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 4:** Puy.
- ▼ **Zapatua 5:** Guallar.
- ▼ **Domeka 6:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 7:** Estella.
- ▼ **Martitzena 8:** Mozos.
- ▼ **Eguaztena 9:** Camacho.
- ▼ **Eguena 10:** Puy.

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Jam diskoteka zabaltzeko

Sociedad Alkoholika, Anestesia eta Koma zapatu gauean

Jam diskotekaren inaugurazioa izango da bihar larunbata, gaueko 10:30etan Amillagan. Diskotekaren estreinuan, Sociedad Alkoholika, Anestesia eta Koma taldeekin doaneko kontzertua izango da. Jarraitzaile ugari dituzten hiru talde izango dira beraz diskoteka berria zabaltzearen ohorea izango dutenak. Sociedad Alkoholika gasteiztarrek hardcorea egiten dute eta Anestesia zarauztarrek, berriz, trash eta hard-corearen arteko musika jotzen dute. Mikel *Anestesia* da taldeko kitarra eta horrez gain aski ezaguna da Negu Gorriak taldean baxua jotzeagatik. Azkenik, Koma napparrek euren lehen diskoa kaleratu berri dute eta kritika eta publikoaren oniritzia jaso dute.

Zuzeneko emanaldiak

Jam diskotekan ahal den guztietan zuzeneko emanaldiak antolatu nahi dira. Fernando Etxabarri bertako arduradunetako batek adierazi digunez, *"dagoeneko datozen egunotan izango diren emanaldiak lotu ditugu eta ideia hori da: astebarru-*



Anestesia izango da zapatuan Jam diskoteka estrainatuko duen taldeetako bat.

an edo astebukaeretan kontzertuak antolatzea, asteke egun fijo batean izan gabe".

Moda desfilea eta alkoholik gabeko diskoteka

Hurrengo emanaldiak honako hauek izango dira: urriaren 10ean Model

rockers taldearen kontzertua, urriaren 11n funky jaialdia disc-jockey talde baten eskutik, 12an Bedelkarrek antolatutako moda desfilea iragarrita dago, 19an makailu musika jaia eta, azkenik, urriaren 26an, Social distorsion talde ipamerikarrak kontzertua eskeiniko du. Era berean, Etxabarrik

azaltzen duenez, *"era guztietako ikuskizunak antolatu nahi ditugu eta antzerkiari ere tarte egingo diogu".*

Diskoteka berriak 1.500 lagun inguruko kapazitatea dauka eta igande arratsaldetan, 5etatik 9etara, alkoholik gabeko diskoteka izango da herriko gazteentzat. Diskotekaren ordutegiari dagokionean, Fernando Etxabarrik gainontzeko diskotekek daukaten antzerako ordutegia izango duela esan digu.

1.500 lagunentzako kapazitatea duen diskotekan era guztietako ikuskizunak antolatu nahi dira



**DEBA
GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37




LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

Euskararik gabeko Euskal Herria?

Ez al gara bizi Euskal Herrian? Non hitzegin behar da euskaraz, Euskal Herrian ez bada? Ze arrazoi dago euskaraz dakiten bi lagunek elkarrekin erdaraz hitzegiteko?

Gure ustez euskararik gabeko Euskal Herria, urik gabeko erreka bat bezala da, edo gasik gabeko metxero bat, edo gasolinarik gabe dagoen auto bat, edo idazten ez duen boligrafo bat.

Mila arrazoi ikusten ditugu euskaraz hitz egiteko eta bat bera ere ez, ez hitz egiteko.

Beraz, ez zaitez ahaztu, euskaldun baten ahotan euskara ez dagoenean errekek ez duela urik ekarriko, metxeroek ez dutela funtzionatuko, kotxeko gasolinaren argitxo gorria piztuta egingo dela edota boligrafoak ez duela idatzi edo pintatuko.

Bergarako Euskal Herrian Euskarazek "Euskal Herriak izan behar du (Euskalduna eta librea)" lemapean egingo den manifestaziora gonbidatzen zaituzte. Manifestazioa urriaren 12an izango da Donostian eta autobusean joan nahi dutenek Arranon eman dezakete izena.

BERGARAKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Futbito txapelketa

Labegaraietako Futbito Txapelketaren XII. edizioaren antolaketa aurrera ateratzeko diruz lagundu duten erakunde, elkarte edota etxe komertzialen zerrenda eman genizuen joan zen astean. Gutunean, ordea, huts bat zegoen, Bolintxo Kirolak-en ordeaz, Bolintxo Okindegia agertzen baitzen. Txapelketarako laguntza eman diguna Bolintxo Kirolak izan da.

Bestalde, El Diario Vasco Bergarako kartan irailaren 28an agertutako txapelketari buruzko informazioak zekarren oker bat zuzendu nahi dugu. Bertan esaten zen Udalak 74.960 pezetako dirulaguntza eman digula. Zenbakia ez da zuzena, Udalak 149.920 pezetako dirulaguntza eman baitigu.

Bukatzeko aurten txapelketan lehen aldiz arituko diren taldeak zoriondu nahi ditugu, joan zen astean txapelketako lehen jardunaldian, partiduetan azalduko jarrerarengatik. Arbitro lanak primeran bete zituzten, arau berriak dagokion moduan betez.

LAGUNAK ARETO FUTBOLA

Trenbide zaharra

Antxintxika zalea naiz eta ia egunero korrika egiteko ohitura daukat, batez ere sasoi honetan, udazkenean, Behobia-Donostia eta Donsotiako Maratoia lasterketak direla eta, sortzen den giroa aprobetxatuz.

Agorrosingo atletismo pistan, Matxiategi inguruan eta Osintxura doan trenbide zaharretik egiten dut korrika normalean eta gutun honen bidez eskatu nahi diot dagokionari, trenbide zaharreko zorua konpontzeko. Antxintxika egiten dugunok ezezik -eta ez gara gutxi-, eguraldiak laguntzen duenean bertatik pasioan ibiltzen direnak ere asko dira. Horregatik uste dut, zorua konpontzea beharrezkoa dela. Ez dakit gastegia izango den ala ez, baina ahalegintxo bat egitea beharrezkoa dela pentsatzen dut. Bertatik pasiatu edo lasterka egiten dugunok eskertuko dugu.

MIKEL A.

Tiira biraka



Odol ateraldia asteazkenean

Bergarako Odol Emaleen Elkarteak dei egiten die herriko odol emaleei asteazkenean, hilak 9, Seminarioko lokalean 18:30etan egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

Angiozarko jaietako zozketa

Angiozarko San Migel jaietan egindako zozketan 3.000 zenbakia izan da saritua. Irabazlea agertuko ez balitz, ordezeko zenbakia 2.875 zenbakia litzateke.

Santi Arrietaren eskulturak

Santi Arrietaren eskultura erakusketa izango da zabalik Kultur Etxeko erakusketa aretoan urriaren 8tik 21era bitartean.

Udal zerga, tasa eta zerbitzu gehienak % 3,5 igoko dira

Asteleheneko Plenon, Udal Gobernuak osatzen duten EAJ, EA eta PSE-EE alderdiek, udal zerga, tasa eta prezio publiko gehienak % 3,5ean igotzea onartu zuten. HB, berriz, Gobernuak landutako irizpide gehienen kontra eta beste batzuren alde azaldu zen. Victoriaño Gallastegi alkateak (EAJ) esan zuenez, dirubilketaren ahalmena mantentzea izan da erabilitako kriterioa. Maite Aristegik (HB), berriz, zergak igoz ezin dela udal defizita erreperatu eta jestia hobetu beharra dagoela erantzun zion. Bestalde, ordenantza fiskaletako puntu batzuk aurretik batzordeetan aztertzeke Plenora eramatea salatu zuen Aristegik, eta alkateak zerga, tasa eta zerbitzu guztiak zegozkien batzordeetan aztertuta zeudela esan zuen.

Esan bezala, ordenantza fiskal gehienak % 3,5ean igotzen dira. Salbuespen batzuk hauek dira: Iharduera Ekonomikoen Gaineko Zerga dagoenentan mantentzen da, plusbaliak eta eraikuntza zerga ere ez dira igotzen, azoka lehengo prezioetan geratzen da (merkatuaren



Gobernua eta oposizioaren arteko eztabaida izan zen Plenon.

jestioa enpresa baten esku uzteko asmoa dago), kanposantuko tasek % 10eko igoera izango dute (zerbitzu honek defizit handia omen dauka), ikastaroek igoera desberdina daukate, Udal Euskaltegian % 33ko igoera (ikasle orduko 75 pezetatik 100 pezetara) emango da eta, azkenik, ura, zaborra eta estolderia biltzen dituen erreziboa % 2an igotzen da (5.878 pezetatik 5.998 pezetara).

Erregu eta galderetan, Udal Gobernuak eta HBko zinegotzien arteko eztabaida izan zen. HBk, besteak beste, eurek aurkez-

tutako bi mozio oraindik Plenora ez ekartzea eta hainbat gaitan (Angiozarko frontoia, azokako estudioa edo San Martinetako estanpak) euren iritzia kontutan ez hartzea salatu zuten. Alkateak moziokak lehen bait lehen Plenora ekartzeko asmoa azaldu zuen; Jose Antonio Etxeberria (EA) Hirigintza zinegotziak, denbora faltagatik, Frontoiaren gaia batzordean ez aztertzea bere errua izan zela aitortu zuen eta Luis Abajo (EAJ) kultur zinegotziak estanpen antolaketa enkargatzeko erabakia batzordean hartu zela erantzun zuen.

HILDAKOAK

- Maxima De Pablo Gomez**
Irailak 23, 66 urte.
- Angel Arregi Gantxegi**
Urriak 2, 62 urte.

JAIOTAKOAK

- Semark Lizarralde Solana**
Irailak 24.
- Iker Ortuzar Ruiz de Azua**
Irailak 24.
- Mikel Santorcuato Azkarate**
Irailak 25.
- Jokin Labaien Soto**
Irailak 27.

Zure konfidantzako denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Hitzaldia UNEDen asteartean

Kurtso hasierarako Jose Maria Setien Gotzaiak landutako "Gizartean elkarrekin bizitzeko hezi" izenburuko idatziaren aurkezpena egingo du Jose Ramon Ibeasek asteartean, hilak 8, 18:30etan UNEDeko aretoan. Aipatutako idatzia bereziki haur eta gazteen gurasoei zuzenduta dago.

Jubilatuena irteera Gernikako feriara


Datorren urriaren 28an Gernikako feriara egun osoko irteera antolatuta Jubilatuetan. Irteera 8:45etan izango da autobus geltokitik eta itzulera 19:30etan. Izen-ematea (3.500 pta.) Jubilatuetan bertan edo 76 21 40 telefono zenbakian.

Fruitu txikiak buruzko ikastaroa Urteagan

Deba Garaiko Mendi Nekazaritza Elkartek "Fruitu txikiak" izenburuko ikastaroa antolatu du urriaren 15etik azaroaren 12ra bitartean. Klaseak astearte eta ostegunetan emango dira Urteagako Nekazal Etxean. Izen-ematea eta argibideak Urteaga kaleko 23. zenbakian edo 76 25 47 telefono zenbakian.

Bizikleten gaineko bandoa

Herriko espaloietan, oinezkoentzako gunetan, debekatutako norabideetan eta iluntzen duenean argirik gabe bizikletan ibiltzea debekatuta dagoela gogorarazi du alkateak Bando baten bidez. Udaltzaingoak honi buruzko arau-haustek salatuko ditu.



Azkargorta, Laskurain eta De Pedro asteleheneko batzar orokorrean.

Luis Laskurainek Bearteko presidente kargua utzi du

Hilabete barru zuzendaritza berrizteko bilera egingo da

Luis Laskurain Beart artisten elkartekeko presidentek kargua uztea erabaki zuen astelehenean, Bearteko Batzar Orokorrean. Kultur Etxean egindako bileran 17 bazkide izan ziren (40 bazkide inguru dira guztira) eta Laskurainek bere erabakia jakinarazi ondoren, Bearten etorkizuna izan zen aztergai. Udalarari, idatziz, elkartearentzako lokal bat eskatzeko konpromezua hartu zen eta hemendik hilabete batera beste batzar bat egitekotan geratu ziren zuzendaritza berria aukeratzeko. Beartek ez du presidenterik oraingoz eta zuzendaritzan Bingen De Pedro (presidente ordea), Dani Laskurain (diruzaina) eta Josuren Murgizu (idazkaria) daude.

Beartek aurrera egiteko lokal

baten premia ikusten du. Orain bi urte elkarte sortu zenetik Udalarari behin baino gehiagotan lokal bat eskatu diote, baina Udalak ez du erabakirik hartu horren gainean. Orain idatziz egingo dio eskaria Beartek, bere egoitza propioa izateko itxaropenaz. Bertan, printzipioz, artxiboa eta liburutegia jarri nahi dira proiektu ezberdinak lantzen hasteko. Beartek, bi urte haue-tan, ohizko margo lehiaketak eta erakusketak antolatzeaz gain, Madrilerara, Arco feriara irteerak egin ditu eta Kultur Etxean hainbat bideo emanaldi eskeini ditu. Hala ere, ekitaldiek ez dute nahi besteko erantzuna jaso eta hurrengo bileran aurrerantzean jarraitu beharreko bidea aztertuko da.

Goierrri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Kalean aurkitutako txakurrak Eibarrera eramango dira

Deba Beheko Mankomunitatearekin akordioa egingo da

Kalean aurkitutako txakurren arazoari irtenbidea topatu nahian, Udalak Deba Beheko Mankomunitatearekin kontratu bat sinatuko du txakurrak Eibarko txakurtegia eramanez izateko. Udaltzaingoa, orain arte, Armentiako (Araba) txakurtegia eramanez izan ditu kalean identifikatzeke topatutako txakurrak. Armentian Arabako txakurrak bakarrik jasoko zirela jakin arazi zioten Udalarari martxoan eta ordutik txakurren arazoa konpontzeko aukera ezberdinak aztertzen aritu da Udala. Udaltzaingoa berri ere libre utzi behar izan ditu kalean *chip* identifikatzaile gabe agertutako txakurrak.

Deba Beheko Mankomunitateak hilean 25.500 pezeta eta txakur ba-

koitzagatik 1.075 pezeta kobratuko dio Udalarari. Animalia bakoitza txakurtegia 30 egunez egon behar dela kontutan izanik, hemendik urte bukaerara arte egindako prebisi-oen arabera, 392.660 pezeta ordaindu beharko dizkio Udalak Mankomunitateari. Deba Garaiko Mankomunitatean ez dago txakurtegi zerbitzurik. Zerbitzua Eibarko txakurtegia (Elgetera bidean) ematen da eta beraz Udaltzaingoa bertara eramanez beharko ditu kalean aurkitutako txakurrak. Urtean 25 bat txakur jasotzen ditu Udaltzaingoa herriko kaleetan. Bestalde, Udalak bando bat kaleratuko du txakurrak lotuta eta bozalekin (txakur arriskutsuen kasuan) ibili beharko direla gogoratuz.



Axen Garitano bergarrak Eibarko txakurtegia egiten du lan. ARTXIBOA.

Bidaiak eta zerbitzuak Jubilatuetan

Diputazioak jubilatuei zuzendutako Benidormera bidaiak iragarri ditu urritik maiatzera bitartean. Prezioak 31.500 eta 39.000 pezeta bitartekoak dira eta izen-ematea Bergarako Jubilatuen Egoitzan egin daiteke. Argibideak 76 21 40 telefonoan. Bestalde, Jubilatuen Egoitzak masajista, podologo, jantoki eta ileapaindegi zerbitzuak martxan daudela jakin arazten die bazkideei. Ordutegiei buruzko xehetasunak Jubilatuetako sarreran.

Elosuko mendiko ganadu feria urriaren 12an

Ohizkoa den bezala, urriaren 12an, Pilarika egunean, Elosuko mendiko ganadu feria izango da.

Goizeko 9etan ganadu feriarri hasiera emango zaio, 13:30etan sari banaketa egingo da eta ordubietan Lazkano eta Gorrotxategi bertsolarien saioa.

Arratsaldeko 5etan zaldi eta mandoaren arteko dema izango da. Elosuko Benta-Osteren zaldiak eta Aizarnazabalgo Etxaberen mandoak indarrak neurtuko dituzte 850 Kiloko harriarekin. Era berean egun osoan zehar Laja eta Landakanda bertsolariak arituko dira.

Gripearen kontrako txertaketa kanpaina

Gripearen kontrako txertaketa kanpainarekin jarraituz, Osintxun ostegunean, urriak 10, goizeko 10etatik 12etara txertoa jasotzeko aukera izango da. Elorregiko auzokideek, berriz, urriaren 15ean goizeko 10etatik 11etara izango dute zita.

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

INFERNUKUA

TABERNA

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

15.413 lagun bizi dira Bergaran eta 952 etxebizitza hutsik daude

Aurtengo udaberrian egindako Udal erroldaren emaitzen arabera 15.413 lagun bizi dira Bergaran. Horietatik 7.744 emakumeak dira eta 7.669 gizonezkoak.

Azken hiru hamarkadetan biztanle kopuruak izan duen bilakaerari gainbegirada ematen badiogu, 1971. urtean zuen biztanle kopuru berdintsua du gaur egun Bergarak, orduan 15.415 lagun bizi baitziren gure herrian. 1973. urtean, bestalde, gaur egun baino biztanle gehiago zeuden

eta 1979. urtean 17.153 lagun bizi ziren Bergaran, sekula izan duen kopururik altuena. 1980.etik aurrera, berriz, beherako joera izan da eta ordutik hona, esate baterako, 1.740 biztanle galdu ditu Bergarak.


Beherako joeraren arrazoiak aztertzerako orduan, 60 eta 70eko hamarkadetakoko *baby boom* izenez eza gutzen dena eta migrazio mugimenduak aipatu behar dira. 60 eta 70eko hamarkadetan gaur egun baino haur gehiago jaiotzen

ziren eta kanpotik Bergara lanera etorri zirenak ere asko izan ziren. 70eko hamarkadako azken urteetako krisi ekonomikoak, bestalde, etorkinak Bergaratik beren jaioterrira bueltatzea ekarri zuen.

Datu bilketa auzoz-uzo egin denez, aipatu daiteke, biztanle gehien biltzen dituen distritoa erdialdekoa dela (2.036 lagun) eta gutxien, berriz, Osintxu, Basalgo eta Murinondo auzoak biltzen dituen distritoa (633 lagun).

Biztanleriari buruzko datuez gain, etxebizitzei buruzko datuak ere jaso ziren azkenengo erroldan. Bergaran zenbatu diren 5.894 etxebizitzetatik 952 hutsik aurkitzen dira.

Bukatzeko, esan dezagun, orain arte Udal errolda bost urtetik behin egiten zela, baina aurrerantzean ez da Udal erroldarik egingo, hemendik aurrera herrira bizitzera datozen edota alde egiten dutenen datuak hilez-hil ordenadorean sartuko direlako.



ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09


GURIA
Taberna
Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

BERGARA
ANTZUOLA

BERRIGARA GIDA

BERRIGARA



96

Gida 97

Berrigara Gida 97, **Bergara eta Antzuolako** dendari, lantegi, profesional edota hainbat

zerbitzuren telefonoak jasotzen dituen **gida**

komertziala prestatzen ari gara. **Aitziber**

Aretxaga, Bergaran, eta **Nerea Garitano**,

Antzuolan, kalez kale ari dira gidan agertu nahi

dutenekin harremanetan.

Hala ere, arrazoi batengatik edo bestearengatik

iaz ez bazinen agertu eta aurten agertzeko

asmoa baduzu, deitu ezazu Berrigara astekarira

(76 03 97) astelehenetik ostiralera bitartean, lan

orduetan. **Zure onerako da.** Berrigara Gida 97

Gabonetan doan banatuko dugu **Bergarako**

eta **Antzuolako etxeetan. 5.200 ale** banatuko


ditugu.

Gida 97

BERGARA
ANTZUOLA

BERRIGARA GIDA

BERRIGARA



96

Animaliak

Garrapata edo bakazta

- Zer da bakazta?

- Baba ale baten tamainuko kanpoaldeko parasito bat da, marroi argi edo beltz kolorekoa. Animalien odola xurgatzean elikatzen dira eta odol beroko animalietan agertzen dira beti; txorietan zein txahaletan ager daitezke eta pertsonetan ere agertzeko arriskua dago. Txakurren artean kasu de-xente ematen dira eta esan behar da sasoi honetan, udazkenean, bakazta bolada bat ematen dela. Udaberrian ere beste horrenbeste gertatzen da.

- Zergatik agertzen dira?

- Txahala, zaldi eta ardietan agertzen da batez ere eta menditik bailara aldera jeisterakoan txakurrei kontajiatzen diete bakazta. Txakurretan, buru aldean edo belarrietan egoten da bakazta eta, ondorioz, hazkura izaten dute. Horrez gain, bakaztak hainbat gaisotasun transmititzen ditu.

- Zeintzuk dira gaisotasun horiek?

- Piroplasmosisa da bakaztaren gaisotasuna eta horrez aparte beste


gaisotasun batzuk transmititzen ditu bakaztak: riketsia, borrelia eta erlichia dira ezagunenak. Piroplasmosisaren kasuan txakurra nekatuta bezala egoten da, ez du mugitzarik nahi izaten eta jateari



ROMAN LAZPIUR
(Albaitaria)

ere utzi egiten dio. Txisa kolore fuertekoa izaten dute (koñakaren antzerako kolorekoa) eta zukarra

“Bakazta parasito bat da eta oso arriskutsua den piroplasmosisa transmititu dezake”



Argazkian, bakaztak azal gainean egiten duen eraso ikus daiteke.

izaten dute. Nahiz eta sintomak, hasiera batean behintzat, oso kezagarriak ez izan, esan behar da oso gaisotasun larria dela piroplasmosisa eta zenbait kasutan txakurra hil egin daiteke.

- Nola prebenitu daiteke piroplasmosisa gaitza?

- Sasoi honetan txakurrari bakazten kontrako koilar bat jartzea izaten da onena. Arkakuso eta bakaztaren kontrako produktua (sprayak eta horrelakoak) botatzea ere ondo etortzen da beti. Bestalde, bakaztaren kontrako txertoa ere badago baina orain arte bere efikazia ez dago oso demostratuta. Eta txakurra gaisotu bada, lehen bait lehen tratamenduan jarri behar da. Albaitariak esango du zer egin eta kasu batzutan tratamendu hori luze samarra izaten da.

- Bakazta txakurretan agertzen da bakarrik?

- Batez ere txakurretan agertzen da, bai. Katuen artean zazpi urtetan kasu bakarra ezagutu dut. Sasoi honetan txakur de-xente izaten dira afektatuak. Udan askoz ere kasu gutxiago ematen dira (eta bakaztak gainera ez du hainbeste gaisotasun transmititzen) eta neguan, berriz, ia ez da bakazta kasurik egoten.



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK

- APAINKETARAKO PINTURAK
- ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa eta faxa: 76 11 40

Zabale anaiak

Ehun Kilo

KAXIANO

Markos landa

Gelatxo

Fanbaltz

Drindots

Aitzol Mujika



Bittor Aiape

Bertsolariak

Nahi ta nahiez

AGAULTZ

Furunda



Kilometroak

elgoibar

Vrtz

Trikitake!

Elgoibar, uriak 6

Zokoan

Naiara ta Ines

ZIGOR GAZKEZ

Zubipeko Swing

Bedaxagar Urbeltz

TRIKITIXA KONTRAIRO

Takolo, Pirritz, Porrotz

Egan

TRABUKO


Paperetik
Plazara

Lau Behi

Zutoz autobusez



Zutoz trenez



ZUBIAURRE, Elgoibar



Elgoibarko Ikastola



Ikastolen Elkartea

Urrian eta azaroan

JUBILATU-PENTSIONISTENTZAKO KANPAINA

Opticos Asociados-ek BETAURREKOAK preziorik onenean eskaintzen dizkizu.

Monturak eta graduatutako lenteak

6.950 pta. bakarrik

Monturak eta lente bifokalak

11.950 pta. bakarrik

Eta LENTE PROGRESIBOAK nahi izanez gero, kontsultatu gure super-prezioak.



ZAINDU ZURE BEGIAK

IKUSMENA BERRAZTERTU beharrean bazaude, ORAINTXE DUZU AUKERA: OPTICOS ASOCIADOSek sakon aztertuko dizkizu begiak, begien tentsioa barne, zure beharretara egokituta. ETOR ZAITEZ, ikusmena aztertuko dizugu.

Manso Optika

Irizar pasealekua, 2 BERGARA ☎ 76 27 86



OPTICOS ASOCIADOS ZURE IKUSMENA HOBETZEKO LANEAN

Haurdun bazaude
LAURA da zure
jantzidenda.

Udazkeneko moda
gaztea jazteko neurria
ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE

Antonio Zabala

Donostiako Zinemaldian

Zinezale amorratua, Antonio Zabalak Donostiako Zinemaldia gertu gertutik jarraitzeko aukera izan du. Gipuzkoako Odol Emaleen Elkar-teak emandako Elkartasun Sariko epaimahaian izan da lanean eta Donostian aktore, kazetari eta pertsonaia ospetsuen artean murgildu da.

- Aurtengo ediziotik zer azpimarratuko zenuke?

- Beste urte batzuekin konparatuz, ez da horrenbeste filme txarrik egon; ia denak maila ertainetik gorakoak izan dira baina filme oso onak ere ez dira izan. Bestalde, oso giro ona egon da Donostian. Jende asko ibili da ziklo ezberdinetan eta gauez ere aretoak leporaino egon dira. Zine giro ederra egon da.

- Eta zer da gutxien gustatu zaizuna?

- Iritzi guztiak errespetatu behar dira baina ez nago batere ados epaimahaiaren iritziarekin. Oso nekeza da hain gaizki egitea eta ez dut uste sariak ondo banatuta daudenik.

- Zergatik ematen da epaimahai eta kritikaren arteko ezadostasun hori?

- Herrialde ezberdinetako jendea egoten da epaimahaian eta kultura diferentek izatean baliteke bakoitzak pelikula bat defenditzea eta azkenean erdian dagoen bat saritzea.

- Zuk nola osatuko zenuke palmaresa?

- Urrezko Kontxa *Capitaine Conan* (Bertrand Tavernier) filmean; epaimahaiaren saria *El ultimo viaje de Robert Rylands* filmeari; zuzendari onenarena Bertrand Tavernieri eta interpretaziorenak Norma Alejandro eta Federico Luppi aktoreei, *Sol de otoño* filmean egiten duten lanagatik.

- Elkartasun saria Capitaine Conan filmeari eman diozue. Zergatik?

- Oso filme ona izateaz gain, bakearen aldeko eta jarrera armatuen kontra duen mezu argiagatik.

Bestalde, ez zegoen giza baloreen aldeko filme askorik sail ofizialean.

- Ikusitako filmeetatik zeintzuk gomendatuko zenizkiguke?

- Guztira 26 filme ikusi ditut. Sail ofizialetik *Capitaine Conan*, *El ultimo viaje...*, *Twelfth night* eta *Beautiful girls* gustatu zaizkit eta Zabaltegin, berriz, *Secretos y mentiras*. *Ponette* ere filme oso berezia da.

- Fime txarrenak?

- Txarrena *The fan*, Tony Scottena. *Bajo la piel* eta *Engelchen* ere ez zaizkit gustatu.

- Ofizialaz aparte, zein izan da sailik inte-

resgarriena?

- Zabaltegi jarraitu dut zerbait eta Tod Brownin- gen filmeren bat ere ikusi dut baina ezin da gutzietara heldu.

- Zurrunkarik egoten zen goizeko 9etako pasean?

- Niri ez zait tokatu, baina beste urte batzutan entzun omen dira. Filmea hasita irtetzen zen jendea ere gutxiago izan da aurtten.

- Zer hobetu daiteke Zinemaldian?

- Sarrerak lortzeko horrenbesteko iladak ebittzea beharbada; horretarako saio eta areto gehiago egon beharko lukete.

- Eta izarren presentzia nola ikusten duzu?

- Etoritzen badira hobe, Zinemaldiak oihartzun haundiagoa izango du eta. Baina inportanteena filmeen kalitatea da. Hori izarrekin osatzen bada, askoz hobeto.

“Beste urte batzuekin konparatuz ez da horrenbeste filme txarrik egon, baina pelikula oso onak ere ez dira izan, gehienak erditik gorakoak”



Antonio Zabala, aurrealdean, epaimahaia osatu dutenekin, tartean Bandres eta Lluch.

Zorionak 100 bider

Luisa Agirrezabal, Bergarako amama

1896ko urriaren 9an jaio zen San Antonion. Juanak eta Antoninok 5 alaba eta semea izan zituzten. Horietatik hiru ahizta bizi dira: Luisa, Aurea eta Elisabet. Aurreak aste honetan, urriaren 3an, bete ditu 92 urte; Luisak, berriz, eguastenean, urriaren 9an, 100 egingo ditu, eta zelako 100 urte!

Neskatilatxo bat ematen du: bakarrik bizi da, ez du makila beharrik, etxeko jirak berak egiten ditu, informatiboak entzuten ditu, egunero irakurtzen du egunkaria, eta ez du joateko presarik, bera ondo bizi da eta. Bi seme ditu, Luis eta Periko Payros, eta 9 biloba. Ezkondu zenetik San Pedron bizi da.

- Eskolan ibilitakua zara?

- Lehenengo San Antonion. Mansonekuen aurrian. Ez takitt zenbat urtekiñ hasiko nitzan, bakia emutearren eruaten giñuzten, oiñ eitten dan bezela.


- Zer eitte ziñuen eskolan?

- Ahal zana. Irakurtzen ikasi; puntillia, mallia, gantxillua eta galtzia eitten ikasi... Mutillak eta neskak batera joaten giñan. Mutillak kinkiñetan ibiltzen ikasten zeben.

- Eskolan euskeraz eitten ziñuen?

- Dotriña euskeraz eitten giñuan, baiña eskolia

"Bizitza guztian lan in dot, ta geratu nitzan 87 urtekiñ, motorrak hankak fastidixau zostanian. Ostian, nik segidu ingo neban".



"Mobidu in biha da. Ura geldi baldin badao, aura be usteldu eitten da"

erderaz. Maistria euskalduna zan, eta gure artian dana euskeraz eitten giñuan.

- San Antoniotik Enseñanzara joan ziñan.

- Hiru klase zeren: txikixena, mediania eta gero pasatzen zan monjetara. Eskuko lanak, kamisak josi, eta eskolia erakusten zoskuen. Enseñanza monjak zeren, eta San Antonioko maestria ezkondua zan. Akordatzen naiz Madre Amaliak monja joateko esaten zotala; nik bailarina izetia nahixao nebala esaten notsan. Orduan bailarina izetia pekatu mortala zan, eta

nik hori esaten notsan.

- Eskolatik irtendakuan ze eitte ziñuen?

- Segun ze epoka: tortoloska, hurrego puntillikauta orratz zurixekin, beste batzutan soka-saltoka; eta mutillak buztina-kin kinkiñetan. Hantxe potxoloka, tranpia eta diarra ibiltzen giñan.

- Erromerixetara ta joango ziñaten, ezta?

- Hoixe! Orduan San Martiñen, San Antoniotik gora, be eitten zien; San Martzialera, Antzuelara... juate giñan; hementxe inguruan, ez zeuan diruik urriñaio juateko ta. San Martingua urteko lehe-

nengua izeten zan: orduntxe blusa berrixa jantzi eta juaten giñan. Erromeixetan danbolintteruak, akordeoia eta pande-rua eoten zien. Bitoriana-txo limoi ur basua bost xentimoan saltzen eoten zan. Tortak be saltzen zien. Nahikua dantza eiñ, da etxera. San Martzialen ilusiñoik haundixena tortak eitten zosten, oiñ be ekartzen doste.

- Zuek dantzan ondo jakingo dozue.

- Musikia eoten zan Espoloian. Neguan plazan, da beiñ Pazkuetan hasten zan Espoloian. Ta askotan San Antonion

"Neure txanpantxuakin zelebrauko dot. Erregaloik ez dot nahi, danak sobrante dauzkat eta"

afaltzen gendela musikia entzutzen ziñuan, laga zeuan tokixan afarixa, eta Espolaira.

- Bilbora lehenengo aldiz 15 urtekin joan ziñan.

- Familixia neukan ta agostuan hango jaixak pasatzea joaten nitzan, trenian. Diru guztia datilak eta kokua jateko eukitzen neban. Arenalian ikusten nindduenian bazekixen ze nahi neban. Ointxe be Gabonetan ta datilak ekartzen doste.

- Arantzazun ezkondu ziñaten?

- Bai. Pedro zeuan Idarretanian apopillo, orduan hotela hor zeuan, eta haura etorri zan registrora destinata. Nereana hasi zanian etortzen nik esan notsan "a reir a donde su mujer", bai ba, ni baiño zaharraua zan da, hamar urte ero. Arantzazun ezkondu giñan. Goizian ezkondu, eta kitto; orduan etxakon emoten inportantziaik. Lehen bazkairik ez zeuan. Egunetako bodak baserrikuak eitten zittuen.

- Urriñen noa jun za?

- Madridera. Ezkondu giñanian, egunak pasatzea, hotelera. Orduan lujua zan. Baiña nik Bergako trankilidadia nahixao. Lehen ajetreua kapitalian zeuan, oiñ bertara etorri da. Lehen etxetako atiak zabalik eoten zien, danok giñan ezaunak; oiñ Guanetxeko goixan zein bizi dan ez takitt.

- Emakume Abertzale Batzan ibilia zara.

- Sasoi baten teatroa eittera Gernikara ta joate giñan; eskolia emon, dantzak, kantuak erakutsi... eitten giñuan. Euskal jai-xetan egon eta gero, dendako eskaparatian neukan ipinitta "txindar gu-

txikin, gauza asko". Kentzeko edo atsaldian kultatazoka apurtuko zostela esan zosten; batzokixan eta emakumetan ibiltzearren. Multak birritan pagauta nao, eskaparatiak apurtuta... Gero gerria akabau zanian geatu in zan emakumiena. Baiña ondio be PNVn afiliauta nao.

- Gerra denporan goseik eta pasau ziñuen?

- Ez Jangoikuai eskerak! Amistade asko neukan nik. Ogixa eitte zosten Antzuelan. Nik garixa topatzen neban, harei emute notsen, eta erak itte zosten ogi edar askua, garixan alde. Azukarra ekartzen neban Vitorixatik. Kafia ta be etxatan faltau, olixua be ez. Ta gero hemen eon zan destinata Capitan Izquierdo, ta harek sinpatixia ero hartu zostan, eta erei emuten zotsen raziñua ekartze zostan neri.

- Zuk 100 urte honetako historia kontutan hartuta ze aldatuko ziñuke?

- Neretako txarrena izen da Franco. Diktaduria eon zan, eta mundurako txarrena diktaduria da. Primo de Riverana diferentia izan zan.

- Bergara asko aldatu da?

- Dana. Seminaixua lehen zan: internuak... baiña poliki-poliki "a cerrar". Goiko kondekuak "a cerrar". Santa Anako kondia "a cerrar". Monjak "a cerrar". Kaliak eta zabaldu die, mejorak ein die, baiña nik beste gauza batzui beiratze jet, kaliak ez dotsu emungo jaten. Neuri gazetako Bergara gustatzen jaten. Automobillik pe ez zeuan. Kondiak eta be ez zeuken. Monzonguak zeuken

kotxetxo bat kaballo batekiñ, eta kotxerua. Bizi zan jendia trankillao. Oiñ ez ta bizi.

- Zuek holako kotxetan ibiliko ziñaten.

- Guk ez giñuan hartzen kotxeik. Oiñez, edarki asko gaiña, Elgetara, Elorrixora... Eta bes-tela trenian.

- Dendia noiz ipini ziñuan?

- Alargundu nitzanian, 36xan. Semiak zeuken lau ta sei urte. Traspasuan hartu neban. Drogerixia zeuan, baiña gero nik ipini neban drogerixia eta merzerixia. Ta gero urtiak pasau zianian traspasau in neban ta ni pasau nitzan Margola tintorerixara.

- Eta bizitza guztian lana eiñ dozu.

- Bizitza guztian lana


in dot, ta geratu nitzan 87 urtekiñ, motorrak jo, ta hanka bixak fastidixau zostanian. Femurra bati-an, ta bestian tibia eta perone.

- Ordurako nahikua lan inda congo ziñan ba?

- Ez neukan kantzaziñoik. Nik segidu ingo neban. Operau nindduan medikuak esan zostan: "Luisa, no hubiesemos creido que te hubieses quedado asi." Esan notsan: "hay que ser material de antes de la guerra." Nik bakarrik esate notsan "no quiero quedarme coja". Oiñ bastoi barik ibiltzen naiz.

- Horretaz aparte, ez dozu beste ezer euki?

- Nik hiru mediko euki dittut. Ez nabe bisittau sekula, ez tot euki ezebe,



"Lehen ahiztekin hi eitten neban, baiña oiñ zu eitten dou; galduaz doia".

Jangoikuai eskerrak. Ta ez daukat juateko prisaik.

- Antiojoik ez dozu erabiltzen?

- Bakarrik leitzeko. Etxeberrriako Kalisto zanak ipinittako batzuk dauzkat. Manixia dotsat antiojuei. Erak kentzen dabe bistia, ta ni lehenengo ipinittako antiojuekin nabil. Hagiñak be Jangoikuak dakixenekuak.

- Ze sekretu daukuzue familixan hainbeste urte hartzeko?

- Ez jakin. Edan bapez, jaixa danian txanpan botilla txiki bat, eta bestela, ura, onen onena hoi-xe da gañera. Kafia noizian bein, eta generalian esniakin. Kafia ta esnia bazkalostian.

- Ondo jaten dozu?

- Bai, eta danerakua. Berduria daonian jaten dot, ez dot esango ezeztzik, baiña esaten dot: gaur txirtxillan jana. Gero denpora guztian eoten naiz kri, kri, kri. Odolostiakin babia baldin badao, feliz. Nik, estomagua ondo daukat. Batek esan zostan: aittaren semiaren, Luisa, daukanan edadiakin babia odolostiakin? eta nik: edadiak ze jaukan ba ikusirik odolostiakin? Estomaguak bai! Tripakixak pe jaten dittut. Artua, talua... Nik betekadaik pe ez tot somatzen.

- Egunian zihar ze eitten dozu?

- Jaiki zazpirak baiño lehen.

- Egunero?

- Egunero. Jai egunian be bai. Jaiki eta ura eran fresko-freskua baso bat. Gero armozau: katillukarra edarra, kafia ta esnia sopak eindda. Hartu fregonia, eta eskillaria. Gero ensegida korredoria, gero ensegida kuartobañosa, gero horko azpi hori, gero sukaldia, gero neure kuartua. Goizeko zazpiretan eskillaretatik hasi eta dinbi-danba, dinbi-danba, goiz guztian geatu bez.

- Kantsau ez zara eitten?

- Ezta tortaik pe. Kantsatzen naiz egonian baldin banao.

- Bazkaixa zeuk gertatzen dozu?

- Ez, ekarri eitten dos-te, ostian neu moldatzen naiz.

- Atsaldetan siestaik eitten dozu?

- Ez. Urten korredore-ra, eta harutz eta honutz ibili eitten naiz, mobidu. Lehen mendira bazkaldu orduko joaten nitzan. Mobidu in biha da. Ura geldi baldin badao, aura be usteldu eitten da. Gero baten bat etortzen da bisittara eta harekin jardun. Gero upaiñak (ipuinak) esan, lehenguak ero oingnak.

- Radixua entzuten dozu?

- Lehenengo lehenego ipintzen dot bederatzixetan, notiziak. Hara, radiua daukatenetik nik ez tot mobidu, Radio Euskadi entzuten dot. Total danak



"Esango balostie oiñ, lehengo bizimodua ero oingua, Jaungoikua entzuten daon bezela, nahixao dot lehengua"

antzea esango dabe. Gero entzungo dot ordubittakua ero, hurrongo lauretan, ta gero gabian zazpiretan, eta atzenengua zortzitxaerdietan akabatzen da. Haura akabatzen danian, adios muy buenas, ogera.

- Radixua notiziak entzuteko ipintzen dozu?

- Bakar bakarrik notiziak entzuteko. Nik ez soiñuik, eta ez... gazte denporan makiña bat dantza indda nao bai... Ta gaiña etxat gustatzen oingo musikia. Oingo

musikiak emuten dau kalendaruak saltoka dabituela. Hori ez ta ez dantzia ta ez ezebe. Lehen kantua zan kantua, baiña oiñ, tia tia. Telebisiñua hor dao galanta: bakar-bakarrik domeketan mezia entzuteko telebistatik. Urteberriko Vienako kontziertua be entzuten dot.

- Periodikua be irakurtzen dozu, ezta?

- Egunero. Gehixen leitzen dotena da deportiak. Pelotia asko gustatzen jat, fubola baita. Fubolian Athletikua naiz, amorratua, bizi guztian. Letra

THE DOOR TO

LA PUERTA AL

ALEMANA BERGARAN

Gu dagoeneko hasi gara. Eta zu?

Burdinate, 5 BERGARA • Telefonoa: 76 30 01 • Faxe: 76 00 32

haundixak pe leitzen ditut: Aznar y Maznar, el bigotudo, la bigotuda ta. Oin daon jiria txarra da, oiñ iñobe ez ta entendi-tzen. Iñor ezin da alkarre-kin entendidu. Lehen bi kolore zeren, oiñ arko iri-sak baiño kolore gehixao.

- Erderaz non ikasi dozu?

- Monjetan, danak erdeldunak zien ta. Dendan gehixena euskeraz eitte giñuan, lagunekin be bai. Azkenian jardunian jardunian erderaz ikasi.

- Zuek hika eitten ziñuen?

- Bai, hi eitten giñuan. Familiarraua ero zan. Zu esate ziñuan konfianzaik ez zeukazunian, bestelakuai hi. Oiñ galdu in da. Lehen ahiztekin hi eitten neban, baiña oiñ zu eitten dou, galduaz doia. Berori be bai. Puxkat danai beti berori, onddio Don Nikomedesi be bai. Lehen gaitzizena be zeuan a tutiliple. Oiñ...

- Zer da diferentia lehen da oiñ?

- Bizimodua. Ni neuri esango balostie oiñ, lehengo bizimodua ero oingua, Jangoikua entzuzen daon bezela, nahi-

xao dot lehengua. Zalako sanuaua, askoz be sanuaua. Oiñ emun ez ta gainea atzetik gaizki esan. Gaur dago inbidixia eta egoismua a mas no poder.

- Hori lehen be izango zan.

- Banakak.

- Baiña lehen oingo gauza asko ez zeuan.

- Baiña ondo bizi. Danak kantuan; lehen kantau etxe danetan, hobeto ero gaizkixao. Oiñ kantau eitten dabe makinak, baiña kantatzen dabe erak nahi dabenak. Oiñ gauza asko dae sobrante. Ojala gutxiao balere, eta hobeto repartiduta.

- Ze ohitura aldatu da?

- Dana. Lehen bedertzittan gabian erretiratzen zana marifandango zan. Eta oiñ beratzittan urten ez, onddio berandua, eta erretirau goizian.

- Jazkeria, jateko modua, relijiñua, jai-xak... beste ze aldatu da?

- Oiñ elizara ezta jutten iñobe. Disparatia pentsatzen jat. Relijiñua da puxka bat frenua. Oiñ ez dao geroko billurrik ez gura-

suenik, eta ez obispua-nik. Lehen be jatorduak zien danak alkarrekin. Aittagure bat errezatzen zan eskerrak emoten...

- 100 urte zure amandrian sasoiari egiñ izan baziñu, oiñ baiño hobeto bizi izen- go ziñan?

- Nik dakitt algara galantak eindda bizi ziala. Eukiko zittuen eron gauzak, oiñ be bai, danok dauku zeoze, baiña oiñ algaraik ez tozu entzuzten. Oiñ ez dao pozik.

Oiñ konejuan kiñua ein, ta aurrera. Erdixak baiño gehixao amorratuta bizi die.

- Ze da 100 urte betetzian onena?

- Ondo eotia, ta Jangoikuai eskerrak, ondo nao.

- Ta txarrena?

- Neure lagunetatik neu bakarrik geratu naiz. Bestela, penaik ez taukat ezebe. Ni neu bizi naiz ondo, barre algara galantak ein dittut, bakar bakarrik penia urtiak, hauraxe ez dosta kenduko iñok pe.

- 100 urtian euki dozu astirik edo aukeraik nahi ziñuan dana eitte-

ko?
- Ez dot esango neure artian: hauxe in baneu edo ez paneu. Trankil bizi naiz alde horretan. Ahal dotenai ondo in jat, ta behintzat txarrik, neuk jakiñian, ez tot eiñ.

- Zek lagundu dotsu bizimoduan aurrera eitten?

- Ez naiz izen geldik eotekua.

- Gaztetan zela zelebratzen ziñuan zure eguna?

- Eskaparartetan zihar-ka beirau bai, ta aurrera! Errialian kanotilluak, eta errialik ez. Halaxe zelebratzen giñuan, ziharretara beiratuta. Koittaua!

- 100 numero potolua da. Urtebetetze berezixa izengo da?

- Iguala. Lanak pe igual igualak.

- Zela zelebrauko dozu?

- Neure txanpantxua-kin. Juan zan urtian neure egunian izan zan fatal. Zoratu, telefonotik jendia diadarka, zenbat lora... azkenian tontotuta.

- Ze erregalo jaso nahi dozu?

- Ezebez. Danak so-brante dauzkat eta.

JUBILATUEN KANPAINA

Urria - Azaroa 96

MultiOpticas J. LARRAÑAGA

MultiOpticas EIBAR

Paregabeko prezioak

- KRISTALDUN BETAURREKOAK 7.500**
- BETAURREKO BIFOKALAK 10.800**
- LENTE PROGRESIBOAK 17.500**

Hurbil zaitez

Luxozko barometro 1en zozketa

Ibargarai, 16 - **BERGARA**
Tel. 76 15 75

Juan Carlos Guerra, 1 - **ARRASATE**
Tel. 79 29 95

J. M. Barandiaran Enp. - **ORDIZIA**
Tel. 88 99 88


Bidebarrieta, 2 - **EIBAR**
Tel. 20 05 22

Jasotzen duzun pentsioak bizitzeko lain ematen dizu?




Ana Rodriguez

Ba jasotzen dudanarekin ez naiz heltzen baina, zer egingo dut? Nori kexatuko naiz? Kobratzen dudana ez da nahikoa etxea ordaindu eta beste gastuei aurre egiteko.



Abundio Lopez

Gutxi jasotzen dut, 22 urte daramatzat *inbalideza* hartuta bistiagatik. Nik pentsio bajua daukat eta soldata bajua dutenei igotzea komenni da.



Epifanio Gonzalez

Ni pozik nago kobratzen dudanarekin; oraingoz behintzat ez daukat inolako kexarik.




Jacinta Irisarri

Oraingoz ailegaten zaigu pentsioarekin. Ni konforme nago. Hainbeste urtetan gizona kotizatzen egon ondoren orain ez dituzte pentsioak jeitsiko ba...



Karmen Oianburu

Ni konforme nago jasotzen dudan pentsioarekin. Nik behar ditudan gauzetarako behintzat heltzen zait. Alarguna naiz eta gastu gutxi daukat.



Lorenzo Arrizabalaga

Ezin naiz kejavu baina gehiago emango balute ere hartuko nuke. Bizitzeko nahikoa? Segun, azken batean ondo lan egin duenak ondo kobratzen du gero.



ALTZARIK
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1

iletxo

ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

MAHER

Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

Maxim's

☎ 76 20 61

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK
Irala, 5 ☎ 76 53 09



Euskaldun berriak

"Euskal" Herrian edo jaio nintzen, eta txikitatik eskola erdaldun batera eraman ninduten. Ama hizkuntza gaztelania, gaztelaniaz pentsatu, bizi..., baina euskaldun sentitzen nintzen, kontraesana ezta? Horrek bultzatu ninduen euskera ikastera, euskaldun izatearen beharrak hain zuzen.

Baina bidean hainbat traba aurkitu nituen: euskaltegitik atera eta ikasten nuena praktikan jartzeko aukera gutxi (etxean gaztelaniaz, kuadrilan, zineman...). Orduan konturatu nintzen euskalduna izatea zein zaila den. Beraz, giro euskaldunean mugitzen ahalegindu nintzen, bertan beste esparruetan zeuden arazoak esistituko ez zirela pentsatuz.

Baina hara non nire sorpresa: alde batetik euskaldun zahar askoren konplexua, beraien hizkuntza etxekoa dela eta nirea aldiz, eskolako, txukuna, zuzena...; bai zera!, gustatuko litzaidake niri beraien joskera jator horiek menderatzea!

Eta bestetik, euskeraz zerbait galdetu eta jarraian hala-koak entzun behar: "Bilbokoa, ezta?", "laborategiko euskara darabilzue" edota "a ze euskara arraroa"... Eta jakina, askotan erantzunak erdera hutsean (agian ez dugu ulertuko eta) jaso behar.

Bai, badakit euskaldun berri askok ahozkeran hainbat akats dituguna edota naturaltasuna falta zaigula. Baina ez litzateke hobe izango guzti hau zuzentzen lagundu, eta konplexuak atzean uztea?

Halaxe kontatu zidan euskaldun berri batek...

Joan Ander BENGOA



Etab txakurra?

Oporretara!! Mailetak antolatu eta traste guztiak autoan sartzen dira. Baina zer gertatzen da, hor, lau hankaz zutitzen den "traste" horrekin? Egun ere zenbait familiatan ematen den dilema da. Oporrak direla eta ez dute jakiten etxean izan duten txakurrekin zer egin. Hotel eta kanpinetan ez dituzte animalia hauek onartzen, beraz aukera gutxi dituzte (ordainduz edota fabore gisa) edo nonbait bakarrik uzten dute bere kabuz aurrera aterako den edo beharbada pertsonaren batek jasoko duen jakiteke. Aurten ere horrelako kasuen ondorioak ikusteko aukera izan dugu.

Barrenkale inguruan ikusi genuen lehen aldiz espaloian etzanda. Beltza zen ia guztiz, paparrean orban txuria zuen eta jarrera dotore eta harroa somatzen zitzaion nonbait. Lagun batek printze tankera hartu zion eta "Príncipe" deitzen genion ikusten genuen bakoitzean. 4-5 egun eman zituen Bergarako kaleetan ahal zuen moduan bizirik irauten.

Galizian oporretan izan diren lagun batzuk ere, errepide baten inguruan hilabete eskas zituen txakur bat ikusi zuten. Abandonatua zela zirudien, ez bait zegoen inor edo herririk inguruan. Hiru egun beranduago errepide beretik bueltan, bazterrean ikusi zuten hilik, gelditzeko aukerarik izan ez zuen auto batek jota. Txakur bat ez da opari ez eta kapritxo bat. Kontutan izan behar da animaliak haserre, beldurti eta jeloskor agertzen diren einean sentimenduak espresatzen ari direla sentitzen dutenaren arabera. Gizakienganako nolabaiteko parekotasuna daukate, azken finean, guztiok eboluzio adar beretik bait gatoz.

Amaia ALBERDI


Erakusketa eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu

LENIZ ALUMINIOAK


Bi orriko atea

Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.


Bi orriko leihoa



Orri bateko atea: 73.000 pzta.!!!



Leihoen neurria zure beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...



Orri bateko leihoa: 54.000 pzta.!!!

Oharra: Prezio hauetan instalazio osoa sartzen da.

■ De Zerioen lan berria

Xabier De Zerio eskultoreak lan berri bat jarri du **Bargotan** (Nafarroan), bertako Udalaren enkarguz. Eskulturak “**Uztarki**” izenburua dauka eta Jardunek antolatutako “Amodiozko gutunen Berrigara lehiaketa”rako sortu zuen De Zerio, formato txikian, orain bi urte. Harriarekin (Pitillaseko harenarriarekin) egina dago eta bere tamainu eta pisu haundiagatik estudiantik kanpo egin behar izan da, Marmoleria Bergaresan eta hargin profesionalen laguntzaz. Eskulturaren jarritako plakak honela dio:




“Eskultur-talde honek, lurretik zuzenki sortua eta goratuko duen oinarririk gabea, bi elementuren ideia ematen digu, bi osotasunena, eta nabiz itxuraz nabiz tamainuz guztiz desberdinak izan, lanari izenburu eta indarra ematen dion eta bi zati hauek lotzen dituen “huts-arima” batetan elkartzen dira. Lanaren apaltasunak ez du salbuetsi nabi bere obizko mezu kontzeptuala”.



■ Iker Zabalaren omenezko irteera

Iker Zabala joan zen astean hildako gaztearen omenezko mendi irteera egin zen domekan. Guztira 70 bat lagunek hartu zuten parte Ikerren lagunek antolatutako irteeran.

Irukurutzetara heldu ondoren, bertan Ikerren argazki bat jarri eta lora batzuk



utzi zituzten. Ondoren, Ikerren oroimenez, Xamatzeko bi kidek aureskua dantzatu zuten txistularien laguntzaz. Irukurutzetatik **Karakatera** abiatu ziren partaideak eta handik, Soroluzetik, Bergarara itzuli ziren. Goizeko 8 t'erdietan hasitako ibilaldia arratsaldeko 6ak aldera amaitu zen.

**A
R
R
A
N
O**

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA


ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOYO-TOKI
D. Iruia, 3 - Tlf. 761235
Maldakalegi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

Pepelu

Ilepaindegia
Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

**■ Aitzol Mujika
Kilometroak 96era**

Aitzol Mujika 17 urteko kantari bergararrak domekan Elgoibarren ospatuko den **Kilometroak 96** jaiari hartuko du parte. Aitzolek goizeko 10etatik 10 t'erdietara bitartean emanaldia eskeiniko du **Albitxuri** arean. Aitzol bakarlaria dugu eta kitarrak lagunduta bakarrik irtengo da eskenatokira, 10 bat kanta jo eta abestera. Orain arte hainbat emanaldi eman ditu Elgetan, Oñatin eta Bergaran eta igandean inoiz baino ikusle gehiago izango ditu Aitzolek. Ziur Elgoibarrera joandakoek Aitzolen kantekin gozatuko dutela...




**Zertan
dihardute
ba?**



Jokin Inza 72 urteko bergararrak, erbestean euskal irratiairen bultzatzaile izateagatik, Radio Euskadiren Komunikazio Saria jaso zuen joan zen ostegunean. Jokin Inzak 1956 urtean Venezuelara alde egin zuen eta han, besteak beste, Jose Joakin Azurza, Jabier Leizaola edo Alberto Elosegiren laguntzaz, *Eusko Irratia-Eusko erresistentziaren ahotsa* emisora sortu zuen. Irrati emisora 1965etik 1978ra bitartean egon zen martxan. Bilboko Villa de Bilbao hotelean, Azurzak eta Inzak Xabier Santxotenaren eskultura bana jaso zuten ostegunean.

■ Kilometroak 96ko txartelak


Igandean Elgoibarren ospatuko den Kilometroak 96 festaren inguruan aurreko asteetan Berrigararen antolatu dugun jokuan irabazle suertatu direnen izenak honako hauek dira: **Ane Miren**



Manzisor, Itziar Casanellas, Lirain Sotil, Nagore Aizpurua, Eulali Elgarresta eta Irene Santamaria. Kilometroak 96ko logotipoa Berrigarako orrialde batean izkutatu genuen, 18. orrialdean hain zuzen ere, eta goian aipatutako seirek topatu dute. Ondorengo zozketan beren izenak atera dira.

Kilometroak 96k salmentan izango duen materiala

erosteko 2.000 pezetako balioa duen txartel bana jaso dute irabazleek. Zorionak guztiei eta ondo pasa igandean Elgoibarren.



HAIZETEL
Telefonia mobila

Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68

ZUBIETA
elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Isabel Muruamendiaraz

Etxeberri baserrian jaio zen duela 75 urte. Ramiroekin ezkondu zenean San Antonion denda zabaldu zuten. Dendan, Ramironekoan, pasatu ditu bere bizitzako ordurik gehienak. Duela 5 urte erretiratu, eta lasai-lasai bizi da, paseo ederrak eginez.

- Zer da saldu duzun gauzarik bitxiena?

- Oso gauza normalak, oinarritzkoak, saltzen genituen.

- Urte hauetan asko aldatu da merkataritza?

- Lehen gehiago saltzen zen, orain denda handiekin eta konpetentzia handia dago.

- Berriz dendarri izango zinateke?

- Bai. Neuk uste baino gehiago jarraitu dut dendan, gustatu egiten zaidalako.

- Zer ez zenuke salduko?

- Oinarritzkoa eta beharrezkoa ez den guztia.

- Egun batean zer egiten duzu?

- Paseatu, mendira joan, eguraldi onarekin egunpasa Gollara joan...

- Pelota gustatzen zaizu?

- Bai, askotan ikusten dut gainera. Jose Mari Zezeaga da nire faboritua.



“23 urtean jarraian Benidormera joaten gara. Urretxindorrek taldearen kantuak asko gustatzen zaizkit. Errege eguna asko gustatzen zait, baina Gabonak tristeak dira. Bakailaua pil-pil eran ondo ateratzen zait.”

- Oporretara joaten zara?

- Benidormera 23 urtean jarraian joan gara. Urtean birritan joaten gara. Datorren astean goaz.

- San Antonion aldaketarik izan da?

- Lehen Bergarako auzorik herrikoiena zen, ikuskizunak eta juergak asko izaten ziren; orain, berriz, ez dago ezer.

- Ileapaindegira zenbatero?

- Astero edo hamabostean behin. Guapa egotea gustatzen zait.

- Gustatzen zaizkizu bertsoak?

- Ez dit graziarik egiten.

- Kantarik politena?

- Euskaldunetan sentimental guztiak; Urretxindorrenak asko gustatzen zaizkit. Gaztelaraz, Bocheros taldearen Caruchita.

- Ondo ateratzen zaizun jakia?

- Bakailaua pil-pil eran.

- Gabardina ala guardasola?

- Airosoago ibiltzen da guardasolarekin.

- Urteko egunik politena?

- Errege eguna. Besteak pozik ikustea gustatu egiten zait.

- Eta tristeena?

- Gabonak.

- Telebistako programa bat?

- Hotel Royal Manzanares. Lina Morgan Madrilen ikusita dugu, eta oso artista ona da.

- Zer esango zenioke 100 urte betetzen dituen bati?

- Zorionik beroenak. Badakigu Luisa oso ondo dagoena, eta horrela jarrai dezala.


BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

**ALDI BATERAKO
ADMINISTRARIA
hartzeko deialdia**

Oinarriak eta informazio gehiago:
Udal Euskaltegian (Zabalotegi, 13).
☎ 76 44 53 (08:00etatik 13:00etara).

Eskaerak aurkezteko epea:
Irailaren 30etik urriaren 15eko
12:00ak arte euskaltegian bertan.

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Felipe SUDUPE Hagin klinika

*Medikuntza eta zirugian
lizentziatua.
Estomatologian espezialdua.*

558. kolegiatua.



GIPUZKOAKO ODONTO-ESTOMATOLOGOEN ELKARTEA

**Kontsultarako ordua
aurretik eskatu.**

Matxiategi 18 behea, ezkerria. ☎ 76 07 86

ETXEBIZITZA

Pisu berria salgai Donostian. ☎ 76 05 13.

Pisua salgai Matxiategin. 87,5 m2. Egoera onean. ☎ 76 31 22.

Etxea salgai Zubietan. 8 milioi. ☎ (94) 682 03 23.

Garajea salgai San Lorenzozon. ☎ 76 58 28.

Pisua salgai Espoloian. ☎ 76 58 14/79 83 45.

Garajea salgai Zurraderon. ☎ 76 02 89 (gauetz).

Pisua salgai herri erdian. ☎ 76 19 29.

Baserrria salgai Elgetan. ☎ 12 09 67/12 71 10.

Donostian (Amaran) pisua osatzeko 2 neska behar dira. ☎ 76 17 20/27 18.

Bilbon pisua osatzeko 3-4 lagun behar ditugu. ☎ 76 03 58/76 57 70.

Osintxun buhardilla bat salgai. Bizitzeko egokia. Prezio oso merkea. ☎ 76 15 36.

Pisua salgai Mugertzan. Amueblatua. ☎ 76 53 79.

Frontoian pisua salgai. 160 m2. ☎ 76 24 42.

Pisua salgai Martokuan prezio onean. ☎ 76 59 96.

Garajea (2 plaza) salgai Ibargarain. ☎ 76 28 33.

DENETARIK

2. eskuko tronpeta erosiko nuke. ☎ 76 08 42.

Errepiderako Alan bizikleta salgai. ☎ 76 34 25.

Enkuadernazioak egiteko prentsa erosiko nuke. ☎ 76 58 28.

Citroen Xantia (SS-AV) kotxea salgai. 3.000 kilometro. ☎ 76 28 50.

Leioako unibertsitatera arratsaldez joateko kotxea behar dut. ☎ 76 50 11.

Mendiko bizikletako (XTR) kanbio eta frenu mantentak salgai. ☎ 76 52 31.

Renault 9 TSE kotxea (SS-W) salgai. 225.000 pezeta. ☎ 76 25 77.

Taberna-jatetxea alokairuan Olan. ☎ 76 37 80.

Setter txakurkumak salgai. Ehiztariak. ☎ 76 34 95.

Ford Fiesta kotxea salgai (SS-L). ☎ 76 37 59.

Logela bat salgai. 15.000 pezeta. ☎ 76 42 86.

Taxi-plaza eskualdatuko nuke. ☎ 76 44 04.

Saskibaloiko erropa galdu zait. Urdin argia, 11 zka. eta Biltokiko propagandarekin. ☎ 76 46 90 (Ane Miren).

LANA

Lizentziatu batek OHO, BBB eta UBI klaseak ematen ditu Bolun. ☎ 76 47 43.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 04 65.

Mate, fisika, kimika eta diedriko klaseak. BBB, UBI, LH. ☎ 76 24 31 (Eneko).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Etxeko lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

Perkusio ikastaroa Arratsaten. ☎ 79 80 25 (Iñaki).

Aleman diplomatuak klaseak ematen ditu. ☎ 76 12 77 (Maite).

Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 00 54 (Ainhoa).

Majisteritzan diplomatuak neska batek haurrak zaindu edo klaseak emango lituzke. ☎ 76 48 53.

Unibertsitate mailako klaseak. Estatistika, BBB eta UBI. ☎ 76 35 37.

Pertsona bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 03 74.

Erizain batek arratsaldean lan egingo luke gaixoak edo helduak zainduz. ☎ 76 54 52 (Jone).

**ETXEBERRIA****ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65


**Aldoka
Maldoka****TABERNA**

Kruz Gallastegi BERGARA

CAMACHO**Drogeria
Usaindegia**Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35**Carmen Garate****Plastikoak orokorreen. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...**

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



Jesusa Mujika

Jesusa Mujikak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, orain dela hamabost egun egindako galderak berak asmatu dituelako eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen etxearen, eta honen aurrealdean dagoen plazaren izenak galdetzen genizkizuen. Erantzun zuzena honako hau: **Unzeta eta Loiola etxea eta Erregetxo plaza**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Jesusa Mujika**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

“Bikote batentzako hilarri” berezi hau, San Antonion aurkitu dezakegunaren estilo berekoa, Bergarako zein eskultorek egin zuen 1982. urtean?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara


| 1 | TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|-----|-----------------------|---|---|------|------|
| 1. | AZPEITXI JATEXEA | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 2. | A ZE FLAXA ETXAGI | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 3. | BAR CANALEJAS | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 4. | BILDURBAREK OPEL/LAM | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 5. | ERROTAGAIN | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 6. | JAUJA OH ZEREZOS | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 7. | MADURA INDUSTRIAS GOL | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 8. | MONGATXURRAK | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 9. | OGIZUN | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 10. | OLLAGORRA/ARLOTEAK | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 11. | ORTZI | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 12. | PAGOMENDI | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 13. | UFALA | 0 | 0 | 0 | 0 |

| 2 | TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|-----|----------------------|---|---|------|------|
| 1. | AGINASPI | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 2. | AGIRREBEÑA | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 3. | ARTU SAMAK | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 4. | AUTOBEREZI | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 5. | ERI | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 6. | ETXAGI | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 7. | EZINLEIKE | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 8. | HALTZARI | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 9. | INDARGORRI | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 10. | KAYAK OS JARDINEIROS | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 11. | LA JUVE | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 12. | SOROPOTROAK | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 13. | UBE BIKOITZA JAM | 0 | 0 | 0 | 0 |

| 3 | TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|-----|------------------------|---|---|------|------|
| 1. | FAC | 3 | 1 | 5 | 0 |
| 2. | MOSKIS | 3 | 1 | 2 | 1 |
| 3. | TXIPIRON | 1 | 1 | 2 | 2 |
| 4. | JAKINA PATXARAN TEAM | 1 | 1 | 2 | 2 |
| 5. | IGANDEKOAK | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 6. | NEKROFIKOS | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 7. | PIJOS | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 8. | MRW | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 9. | EH BITERRAK | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 10. | CONSTRUCCIONES BERGARA | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 11. | GUADALEST | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 12. | NAHIKARI HOOLIGANS | 0 | 1 | 1 | 2 |
| 13. | ARI ARI | 0 | 1 | 0 | 5 |

| 4 | TALDEAK | P | J | G.A. | G.K. |
|-----|-----------------------|---|---|------|------|
| 1. | OSINTXU | 3 | 1 | 7 | 1 |
| 2. | MANITOU | 3 | 1 | 5 | 1 |
| 3. | SLO | 3 | 1 | 3 | 1 |
| 4. | PANORAMIX | 3 | 1 | 2 | 1 |
| 5. | PATA NEGRA | 3 | 1 | 3 | 2 |
| 6. | XURRUPAK | 3 | 1 | 5 | 4 |
| 7. | ARBE KIROLAK | 3 | 1 | 2 | 1 |
| 8. | MATXAKATEGI | 0 | 1 | 1 | 2 |
| 9. | KOMANDO PIPERRAK | 0 | 1 | 4 | 5 |
| 10. | PITTIKAK | 0 | 1 | 2 | 3 |
| 11. | AMILOTX | 0 | 1 | 1 | 2 |
| 12. | ALDOKA MALDOKA | 0 | 1 | 1 | 3 |
| 13. | ETENGABE | 0 | 1 | 1 | 5 |
| 14. | POLIDEPORTIVO TABERNA | 0 | 1 | 1 | 7 |

Jokoz kanpo



Iker Barbero

Pjs

TXAPELKETARI EKITEKO PREST?

Bai, hasteko irrikatzen gaude.

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena gogo haundiz jokatzen dugula eta txarrena gure artean azkarregi haserretzen gara.

KANPORATUA IZAN ZARA INOIZ?

Bai, behin, aurkari bati ostikoa emateagatik.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Goizez, trankilago jokatzen delako.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Talde on asko daude, baina Arloteak-ek ez dauka ekipo txarra.

AURRELARI ONENA?

Jauja OH Zerezos taldeko Juan Luis Etxaniz.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HAUNDIENA?

Iaz 10 eta 5 irabazi genion Pata Negrari.

ETA JASOTAKOAZ?

Bildurbarek Opel/Lam taldearen kontra 7 eta 0 galdu genuen Kopan.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO?

Hirugarren mailan jokatuko dugu eta lau lehenengoen artean geratzea da gure helburua.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Agustina Aranzabal.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Michael Jordan.

EUSKAL HERRIKOAZ?

Abraham Olano.

JATEKO PLATER BAT?

Txahalaren haragi xerra.

EMAITZAK

| | |
|-------------------------------|-----|
| TXIPIRON-PATXARAN TEAM | 2-2 |
| AMILOTX-PANORAMIX | 1-2 |
| OSINTXU-POLIDEPORTIVO TABERNA | 7-1 |
| MATXAKATEGI-ARBE KIROLAK | 1-2 |
| PATA NEGRA-PITTIKAK | 3-2 |
| ALDOKA MALDOKA-SLO | 1-3 |
| XURRUPAK-KOMANDO PIPERRAK | 5-4 |
| ETENGABE-MANITOU | 1-5 |
| FAC-ARI ARI | 5-0 |
| MOSKIS-NAIKARI HOOLIGANS | 2-1 |

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

| | |
|--------|--|
| 09:00: | AMILOTX-POLIDEPORTIVO TABERNA • ALDOKA |
| 10:00: | ALDOKA MALDOKA-PANORAMIX • PATXARAN TEAM |
| 11:00: | MOSKIS-JAKINA PATXARAN TEAM • PANORAMIX |
| 12:00: | AZPEITXI JATEXEA-JAUJA OH ZEREZOS • MADURA |
| 13:00: | MADURA-BILDURBAREK OPEL/LAM • AZPEITXI |
| 16:00: | HALTZARI-INDARGORRI • AGIRREBEÑA |
| 17:00: | AGIRREBEÑA-AGINASPI • HALTZARI |
| 18:00: | PJS-CONSTRUCCIONES BERGARA • AGINASPI |

Zapatuan kanpoan

| | |
|--------|-------------------------------------|
| 16:00: | MANITOU-KOMANDO PIPERRAK • XURRUPAK |
| 17:00: | XURRUPAK-PITTIKAK • GUADALEST |
| 18:00: | GUADALEST-EH BITERRAK • PITTIKAK |

Domekan barruan

| | |
|--------|---|
| 09:00: | UFALA-ORTZI • ERROTAGAIN |
| 10:00: | ERROTAGAIN-OLLAGORRA/ARLOTEAK • A ZE FLAXA |
| 11:00: | A ZE FLAXA ETXAGI-MONGATXURRA • OLLAGORRA |
| 16:00: | BAR CANALEJAS-PAGOMENDI • ETXAGI |
| 17:00: | ETXAGI-EZINLEIKE • LA JUVE |
| 18:00: | LA JUVE-AUTOBEREZI • ARTU SAMAK |
| 19:00: | ARTU SAMAK-UBE BIKOITZA JAM • ERI |
| 20:00: | ERI-KAYAK OS JARDINEIROS • UBE BIKOITZA JAM |

Domekan kanpoan

| | |
|--------|-------------------------------------|
| 10:00: | IGANDEKOAK-FAC • MOSKIS |
| 11:00: | ETENGABE-SLO • IGANDEKOAK |
| 16:00: | OSINTXU-MATXAKATEGI • MRW |
| 17:10: | MRW-NAHIKARI HOOLIGANS • PATA NEGRA |
| 18:00: | PATA NEGRA-ARBE KIROLAK • NAHIKARI |

OHARRA

Antolaketa Batzordeak jakinarazi digu iaz Bergatrans taldean aritu ziren jokalariek milana pezeta ordaindu beharko dutela aurten. Kontua da iaz txapelketatik kanporatua izan zela Bergatrans taldea, partiduetara ez aurkezteagatik, eta izena-ematerakoan ordaindu behar zena ez zutela ordaindu eta diru hori Antolaketa Batzordeak jarri zuela. Horregatik ordaindu beharko dute aurten. Bestalde, iaz Bergatrans taldean aritu ziren hiru jokalarik baino gehiagok ezingo dute aurten elkarrekin talde berean jokatuz.

BKEko saskibaloia 96-97

BKEko eskubaloi saila 5 taldek osatzen dute, hiru mutilenak eta bi neskenak. Urte askotan azpiegitura berberarekin ibili ondoren aldaketak izan dira eskubaloi sailean. Josetxo Muniategik nagusien taldea laga eta jubenilak entrenatuko ditu. Gainera 2. maila nazionaleko taldeak aldaketa ugari izan ditu jokalarien aldetik, joan zen urtetik bakarrik 5 jokalarik jarraitzen



SENIOR NESKAK. Goian: David Urbina (entrenatzailea), Edurne Zabala, Oihana Unamuno, Agurtzane Iñarra, Ana Belastegi eta Iker barbero (entrenatzailea). Behean: Jasone Zabala, Ezozki Araetxeberria, Maider Urbina eta Usuri Garitano.



SENIOR MUTILAK. Goian: Jabier Martin, Ugutz Basauri, Fernando Moreton, Aniotz Gabilondo eta Ramon Conde (entrenatzailea). Behean: Mikel Etxeberria, Mikel Garitano, Alfonso Romero, Iñigo Ziarsolo eta Jordi Prat.



KADETE NESKAK. GANBARA BKE. Goian: Iñigo Martin (entrenatzailea), Maite Usabiaga, Miriam Olabarria, Maite Zumarraga, Miren Maiztegi, Yoana Rocha eta Juan Benitez (entrenatzailea). Behean: Mireia Muñoz, Ane Garces, Kristina Manobel, Eider Domenetx eta Olatz Laborda.

baitute. Denboraldia asteburuan hasiko dute eta Xabier Lijók entrenatzen duen taldearen helburu bakarra mailari eustea izango da.

Horretarako talde gaztea izango dute eta esperientzia falta nabaria izango den arren, gogo askorekin irtengo dira. *"Taldeari esperientzia falta zaio, baina indarrarekin eta gogoarekin mailari eustera irtengo gara"* adierazi digu Xabier Lijók.

Gizonezkoen gainontzeko taldeei dagokienez, bai jubeniletan eta bai kadeteetan mailari eustea izango da helburu nagusia.

Neskei dagokienez joan zen urtean maila autonomikotik jeitsi egin ziren jubenilak eta kadeteak, eta aurten bi taldeak lehen maila probintzian arituko dira. Halere, eskubaloi saileko arduradunek badute esperantzarik emakumezkoen taldekoak datorren urtean mailaz igotzeko. Helburu hori lortzeko ahaleginak egingo dituzte, baina azpimarragarria da aurtengo denboraldian hiru emakumezko Bergaratik kanpo jokatzen arituko direla. Joan zen urtetik Donostiako Corteblando Bidebieta taldean dabilen Amaia Samaniegori, Eibarko Arraten jokatuko duten Usune Beristain eta Irune Gomez gehituko zaizkio.



JUNIOR MUTILAK. Goian: Alex Familiar (entrenatzailea), Gorka Unzueta, Jesus Morais, Martin Etxeberria, Gorka Mendizabal eta Dabid Reglero (delegatua). Behean: Unai Azkarate, Iban Herzog, Angel Ortiz, Oskar Okariz, Igor Setien, Ignacio Aranburu eta Dabid Bouzas.



KADETE MUTILAK. Goian: Sebas Gonzalez, Danel Gorrotxategi, Gorka Eraña, Unai Iñarra eta Ismael Gonzalez (entrenatzailea). Behean: Aitor Zabarte, Jokin Perez, Iban Igartua eta Denis Armendariz.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Pedrusco**

Lehen erregionala.
Zapatua, 17:00. Agorrosin.

◆ **Bergara-Hondarribia**

Ohorezko mailako jubenila.
Zapatua, 17:15. Ipintza.

◆ **Bergara-San Patricio**

Lehen mailako kadetea.
Zapatua, 09:30. Ipintza.

◆ **Bergara-Amaikak Bat**

Bigarren mailako kadetea.
Zapatua, 11:00. Ipintza.

◆ **Bergara-Almen**

Emakumezkoak.
Zapatua, 15:30. Ipintza.

SASKIBALOAIA

◆ **Bergara-Golerri**

Jubenil mutilak.
Zapatua, 16:00.
Mariaren Lagundia.



ESKUBALOAIA

◆ **Bergara-Pilar**

Bigarren nazionala.
Domeka, 12:30. Kiroldegia.

PILOTA

◆ **Bergara-Arrasate**

Kluben arteko txapelketa.
Jubenil maila banaka.
Eguakitza, 22:00.
Udal Pilotalekua.

◆ **Bergara-Illunpe**

Kluben arteko txapelketa.
Junior maila binaka.
Eguakitza, 22:00.
Udal Pilotalekua.

◆ **Profesionalak**

Lau t'erdiko txapelketa:
Tolosa III, Olaizolaren aurka.
Errandonea II, Tabernaren aurka.
Ondoren:
Etxaniz eta Zezeaga,
Titin eta Arretxeren aurka.

Jon Andueza

Realeko jubeniletan

Jon Anduezak 16 urte ditu eta 3 urte daramatza Realean jokatzen. Bi urte kadeetan jokatu ondoren aurtengo denboraldian liga nazionalako jubenil taldean dabil. Gipuzkoako lehen taldean nola dabilen jakiteko berarekin hitz egin dugu.

- Aldaketa handia dago kadete eta jubenil mailaren artean?

- Aldaketa nahiko handia da. Kadetetan astean bi aldiz entrenatzen da bakarrik eta jubeniletan egunero entrenatu behar gara. 18-19 urteko jokalarien aurka jokatu behar dugu eta hori igartzen da. Gure taldean guztiok 16 urte ditugu eta indar gutxiago daukagu, baina gauza asko ikasten dira.

- Egun osoa etxetik kanpo egiten omen duzu.

- Bai, goizetik eskolara joan behar dut eta arratsaldean klasetik irten ondoren mikrobusa hartu eta Zubietara joan behar dut. Gaueko 10ak inguruan heltzen naiz etxera.

- Hasi zarete jokatzen?

- Bai, 5 partidu jokatu ditugu eta nahiko gaizki hasi gara. Bi partidu galdu ditugu, beste bi irabazi eta bat berdindu. Azkenengo biak irabazi egin ditugu eta mailari erritmoa hartu diogula uste dut.

- Ze postutan jokatzen duzu?

- Atzealdean erdian markatzaile jokatzen dut

gehienetan eta beste batzutan eskumako hegalean aritzen naiz.

- Ze postu gustatzen zaizu gehiago?

- Markatzaile gehiago gustatzen zait trankilagoa delako. Lateral postuan gora eta behera ibili behar duzu eta hori zailagoa da.

- Realean jokatzeak presiorik ematen du?

- Bai, presio handia dago. Partiduak derrigorrez irabazi behar direla esaten digute, gaizki jokatu arren.

- Realeko jokalaririk gustokoena?

- Pikabea eta Aranza bal esan beharko dugu.

- Realera igotzea izango da zure ilusioa. Nola ikusten duzu?


- Oso zaila da igotzea. Oraingoan Realean nabil eta bitartean disfrutatu egingo dut. Gero igotzeko edo joateko momentua heltzen denean, argi daukat gutxi igotzen direla eta jarraitzen ez badut lasai asko Bergaran jokatuko dut.

- Gehien gustatzen zaizun futbolaria?

- Baresi, liberoa da eta oso trankila da.

- Realean zaudenetik gehiago ligatzen duzu?

- Ez, berdin jarraitzen dut.



"Atzealdean, markatzaile bezala, jokatzea nahiago dut".

"Realean partiduak beti irabazi behar dira, gaizki jokatu arren"



Argazkia: Imanol Iriagarai

Txokolate beroa

Hamabost edo hamasei urte zituzten neskok institutuko negu gorrian txokolate beroa hartzen ari zirenean. Zein asmo edo amets ote zuten sasoi hartan? "Nik enfermera izan nahi dut", "nik magisteritza ikasiko dut", "nik ez dakit zer egingo du-dan"...

Hamabost urte pasatu dira, orduko gorabeherez akordatzearekin batera, bakoitzak bere buruari kontuak eskatzen hasiko dira: "nik uste baino gehiago egin dut, enfermera izan nahi nuen baina bonberoa naiz..."

Horrelakoak etorriko zaizkie burura, baina baita beste hau ere: "15 urte! 15 urte pasatu dira! Beste batzuen antzera, gu ere urteak banakan kontatu beharrean, binaka, bosnaka eta hamabosnaka kontatzen hasi beharrean gaude."

Ezkerretik eskumara: Amaia Pildain, Amaia Toledo, Eli Etxaniz, Arantzazu Murgiondo, Ines Rajado, Jone Larrañaga, Rocio Aprell eta Marifeli Galarraga.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Ametz

EDERTZE INSTITUTUA



LODITASUNARI ETA BARIZEI BURUZKO KONTSULTAK

ZIRUGIA ESTETIKOA

- Zimurdurak.
- Liposukzioa edo lipoeskultura.
- Sabelaren gutxitzea.
- Bularren haunditze eta gutxitzea.
- Begi-poltsak.
- Sudur zuzenketa.
- Gariak.
- Kouperosia.

Aguinaga (1.806 kolegiatua) eta
Esteban (6.180 kolegiatua) doktoreak.

Masterreka 19, behea BERGARA. Tfnoa: 76 46 53

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu 24 behea BERGARA (Gipuzkoa). Telefonoa eta faxa: (943) 76 30 57



FILA modeloa



NALIA modeloa



ONDA modeloa



OXFORD modeloa



ACQUA modeloa



SAVOY modeloa



FAGOR

Sukaldeko altzariak



Sukalde berriak prezio ezinobeagotan!!